

Euskara ikastaroetarako laguntza eskaera

Organo kudeatzailea eta erabakitzailea

Udaleko Kultur Patronatua

Xedea

Euskara ikastaroetarako laguntza eskaera.

Eskaera aurkezteko epea

2014ko irailaren 26a arte.

Onuradunak

- 12.100,50 eurotik beherako irabazi garbiak dituzten 16 urtez gorako Zizur Nagusiko pertsonak izanen dira laguntza hauen onuradunak.

Aurkezteko lekua

Udaleko Euskara Zerbitzua

Eskaera bideratzeko epea

- Ez dago.

Dokumentazioa

Ondoren aipatzen den dokumentazioa aurkeztuko da ikastaroa bukatuta:

- Udaleko Kultura Patronatuari zuzendutako eskaria.
- Eskatzailearen lan egoera zein den adieraziko duen dokumentua. Langabezian baldin badago, INEMen ziurtagiria, zeinean langabezian dagoela eta laguntzarik jasoz gero, zenbatekoak den adieraziko baita. Ez da ziurtagiri gisa onartuko langabezia txartelaren kopia.
- Lanean bada, sarreraren ziurtagiria (enpresak emana) aurkeztu beharko du, eta horretan eskatzaileak 2013ko uztailetik 2014ko ekainera bitartean izan dituen sarrerak zehaztu beharko dira.
- Ikastaroa egin duela (datak, eskola orduak, maila eta eskatzailearen etekina) eta banku transferentziaren bitartez matrikula ordaindu duela adierazten duten ziurtagiriak.
- Eskatzailearen kontu korrontearen zenbakiaren banku ziurtagiria.

Aldaketa data 2014/04/04

Iraunaldia 2014/09/26